

## **Errumania ezagutzera emateko jarduerak antolatu dituzte Muxikan**

Muxikako Udaleko Kultura Sailak, Danubius elkarteak eta Biltzenek antolatuta, Errumaniari buruzko jardunaldiak hartzen ditu egunotan Muxikako Zubieta Errota liburutegiak. Herritarrak herrialde hartara gerturatzea dauka helburu jardunaldiak.

Hiru dira antolatutako ekitaldiak. Batetik, Kristalean egindako ikonoak izeneko erakusketa ipini dute ikusgai, eta Muxikan egongo da abenduaren 3ra bitartean. Bestetik, Errumaniako historia, ohiturak eta kultura hobeto ezagutzeko aukera egongo da gaur, hitzaldi bati esker. 18:00etan hasiko da berbaldia, eta Oana Tampanariu izango da hizlaria. Errumaniako jaki tipikoen dastaketa ere egongo dute.

Hirugarren eta azken jarduera umeei zuzenduta egongo da. Iulian Gradinaruk dinamizatuta, 4tik 12 urtera arteko umeentzako tailerra egongo dute abenduaren 3an. Hain zuzen, Pazko arrautzak margotzen ariko dira umeak.